ASTEKARIA | 2017ko azaroaren 3an | XX. urtea | USURBIL | 717. zenbakia | www.noaua.eus TOKIKOM

# noaua

**Haimar Zubeldiaren omenaldia, martxan**

**9 talde aurkeztu dira Buruntzaldeko ginkanan**

**Igandean Sutegin, 'Handia'**



# Alejandro Tapia, Aginagako paisaia betikotu zuen margolaria


Kenia
NOAOA
BIDAIAK
943 373 613
IRTEERA MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

Auto Guria s.l
Auto Guria
Mobil Service
Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak
943 363 298
Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Alejandro Tapia
azaroak 3, Ostirala
Alejandro Tapiaren omenezko ekitaldia
Sutegi auditorioa 19:00
Ondoren erakusketaren irekiera egingo da.
Usurbilgo Sutegi erakusketa aretoa
2017ko azaroaren 3tik 12ra
Non: Sutegi erakusketa aretoan. Noiz: azaroaren 3an: arratsaldeko 18:00etatik – 20:00tara.
Azaroaren 4, 5, 11, eta 12an: goizeko 12:00etatik – 14:00etara eta arratsaldeko 18:00etatik - 20:00etara. Azaroak 8, 9 eta 10ean: arratsaldeko 18:00etatik – 20:00etara.
Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Alejandro Tapiaren familia eta ingurua eta Noaua! .

## Albistea iruditan

# Herritarren zerbitzura

Honakoan, Lanbide Eskolako ikasle hauei eskainiko diogu tarte hau. Euren ahaleginari esker, “hemendik aurrera, Antton Zubeldia usurbildarra erosotasun handiagoz moldatu ahal izango delako”, Lanbide Eskolatik aditzera eman dutenez. Gurpildun aulkian, tableta egokitu ahal izateko barra berezia egin diote Anttoni.

Argazkiko gazteak Mekanika Alorreko ikasleak dira eta Fernando Septien irakaslearen esanetara, barra berezi bat diseinatu diote Antton Zubeldiari. Gailu honi esker, tableta gurpildun aulkira egokitu ahal izango du eta erosotasun handiagoz ibili ahal izango da.

“Lanbide Heziketako ikasleak zein irakasleak oso gustura aritu dira lagungarri izango den barra hau egiten”.




**Argazkiko gazteak Usurbilgo Lanbide Eskolako Mekanika Alorreko ikasleak dira eta Fernando Septien irakaslearen esanetara, barra berezi bat diseinatu diote Antton Zubeldiari.**

## Laburrean

### 1967koen bazkaria, azaroaren 11n

2017an 50 urte betetzen ari diren herritarrentzako gonbita. “Laster elkartu egingo gara oroituz ospatzeko. Azaroaren 11: 1967ko kintoen ospakizuna”. Izen ematea urriaren 29an amaitu zen.

### 1952an jaiotakoak Gernikara, egun pasa

Abenduaren 3an Usurbildik Gernikara txangoa antolatu dute. Handik gero bazkaritara joango dira Lekeitiora. Izen ematea eta informazio gehiago: 943 360 273 (Javier). Epea: azaroak 24.

### 1974ko kintoen afaria, azaroaren 25ean

Azaroaren 25ean egingo dute, Saizarren. Antolatzaileek dei egiten diete “urteko afari martxosoenean parte hartzera. Animatu eta deitu edo bidali mezua Josuneri (605 73 08 16)”.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Iñaki Irazusta, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege-Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



Imanol Ubeda

# Barrenak eskatutako margolaria

Koldo Izagirrek Rosalia de Castroren (1837-1885) poemak euskaratu ditu. Aurreko astean aurkeztu zuen itzulpena. Munduko Poesia Kaierak (Susa) bildumaren baitan topatuko duzue idazle galiziarrari eskainitako liburua.

Aurkezpen ekitaldian, De Castroren inguruko xehetasunak eskaini zituen Izagirrek. “Barrenak eskatutako poeta zen. Teknikaren gainetik zegoen barrutasun bat zuen. Eta emakumezkoa izanik, askoz ere handiagoa da barrutasun hori”.

Zer pentsatua eman zidan barrutasunarenak. Idazteko jakinbide nagusiak edonoren esku daude, estiloa tailer ezberdinetan findu daiteke, denborarekin oso hiztegi oparoa bereganatu dezake batek... Barrutasunaren indarra ordea, ez da ikasten. Eta hain zuzen, idazle baten bereizgarri nagusia horixe bera dela esango nuke: barrutasun hori.

Literatura, dantza, musika… Koldo Izagirreren hausnarketak beste edozein jardueretarako ere balio dezake. Baita pinturarako ere.

Ostiraletik aurrera, Alejandro Tapiari eskainitako erakusketa topatuko duzue Sutegin. NOAUA!k antolatu duen Kulturaldiak irauten duen egunetan, Aginagako margolariaren lan ugari egongo dira bertan ikusgai.

Barrutasun horri tiraka, eta bihozkada batek eraginda, hemerotekara jo dut. 2008ko udazkenean, Alejandro Tapiari eskainitako eskultura inauguratu zuten Aginagan. Aitzakia horrekin, erakusketa bat ipini zuen Eliza Zaharrean. Ez hori bakarrik. Margolariak aginagarren omenaldia jaso zuen egun haietan. Artean bizirik zen eta sasoi betean.

Antxomolantxa elkarteak antolatu zituen erakusketa, inaugurazioa eta omenaldia bera. Ekitaldi sortaren harira, Alejandro Tapia bera elkarrizketatu genuen. 2008ko urriaren 17ko astekarian, nire bihozkadaren iturburua aurkitu dut. “Artista batek inoiz pentsatzen al du erretiroan?”, Kazetariak galde egin. Zuzen. Lotsagabe. “Ez”. Margolariak erantzun. Motz eta zorrotz. “Askok galdetzen didate ia margotzen jarraitzen ote dudan. Segituko ez dut ba. Ez dakite zer garrantzia duen. Nola utziko dut ba? Afizioz egiten duen batek, utz lezake. Baina barrutik sentitzen duen batek ezin lezake utzi”.

Koldo Izagirreren hausnarketarekin lotuz, Alejandro Tapia barrenak eskatutako artista zen.

Luis Aranalde | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

## Komikia




TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.









# Ongi etorria Kataluniako errepublikari

Berehala heldu zen guganaino, Kataluniako Parlament-ak errepublika independentea eraikitzeko urriaren 27an emandako urrats erabakigarriaren oihartzuna; Kataluniako errepublika aldarrikatu zuten gehiengo osoz PDCat, ERC eta CUP alderdiek, Parlamentera joandako ehunka alkate eta kanpoan hunkituta eta emozioez gainezka bildu ziren milaka katalanen aurrean.

Kataluniako errepublika aldarrikatu eta gutxira entzun genituen, katalanek hartutako erabakiari ongi etorria eman zioten lehen suziri hotsak.



**Kataluniako Parlament-ak urriaren 27an emandako urrats erabakigarriaren oihartzuna herri askotara zabaldu zen.**

**Sagardoarekin topa eginez, “L´estaca” euskaraz abestuz**

Eta ordu gutxira, sagardoarekin topa eginez, “L´estaca” euskaraz abestuz eman zioten ongi etorria Kataluniako errepublikari usurbildarrek Mikel Laboa plazan. “Guk Kataluniako errepublikari ongi etorria ematen diogu, gure babes osoa eta hotzean berotasuna emango diegula esan.

Ez dela egongo udaberri hoberik aurtengoa baino eta mandatua eta konpromezua ere badugula herri bezala, duintasunaren eta demokraziaren alde hemen ere sendagaia jartzeko. 78ko erregimenaren pozoia behin betiko sustraietatik hartu eta kentzeko. Benetako ongizatea izan eta demokrazian bizitzeko bide bakarra herrien askatasuna delako. Bide bakarra, demokrazia, independentzia delako, ongi etorri Kataluniako errepublika!”.

## Erraustegiaren aurkako “irteera operazioa”




Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deitu zuen II. Barraskilo Operazioak, Belartzatik abiatu eta eskualdeko herriak zeharkatu zituen.

Bidelagunak batu zitzaizkien ibilbidean zehar. Errausketaren aurkako mezua eskualdeko errepideetara zabaldu zuten.

## Hondakinen kudeaketa eredugarria aurkezten




Asteburuan, Herrialde Katalanetan izan da Ibon Goikoetxea udal ingurumen teknikaria. Vila-realen, Biohondakinen jardunaldietan, hain zuzen. Atez ateko bilketa sistema, konpostatze egitasmoa, edota sortzez besteko ordainketa sistemaren inguruko xehetasunak eskaini zituen.

# Merezitako herri omenaldia

Hala da. Herritar talde bat merezitako herri omenaldia prestatzen ari zaio, Usurbili eta usurbildarrei hainbeste une gozo eta poz eman dizkien txirrindulari Haimar Zubeldiari. Orain arte, urtero azaroan antolatu izan dioten ospakizun bazkaria, eskertza eta agur festa handian bilakatu dute aurtengoan. Antolaketa lanetan dabiltzan herritarrekin bildu gara.

**NOAUA! Haimarrentzat antolatzen ari zareten agur festa honen atarian, emozio dezente nahastuko dira zuen artean?**

**Arkaitz Errazkin:** Gazi gozoa izango da. Gazia, bukatu egingo baita urtero ederki ospatu dugun ospakizun bat. Haimar gainera oso gustura sentitzen zen bazkaritan. Aurtengoa ere egin behar zela esan zuen. Alde horretatik pena pixka bat dugu. Eta gozoa, merezi duena eman nahi diogulako.

**Antolakuntza taldea Haimarren urteotako bidelagunek osatu duzue. Zerk lotzen zaituzte Haimarrekin?**

**Ainhoa Arrozpide:** Batzen gaituena helburua da, Haimarri merezitako omenaldi bat antolatzea. Toki ezberdinetatik etorritako 7 lagun bildu ginen hasieran; Peña Zubeldian urteroko bazkaria antolatzen zebiltzanak, lagunak, jarrai–tzaileak… Urriaren 9an herritar orori ireki genion taldean parte hartzeko aukera. Hor beste 12 bat pertsona elkartu ziren helburu berarekin; berak gozarazi diguna ahal den heinean nolabait itzultzeko.

**Hamaika bizipen izango dituzue Haimarrekin. Baten bat partekatu nahi zenukete NOAUA!ko irakurleekin?**

**A.E.:** Lasterketetan gozatu izan dugu. Berak beti begirada botatzen zigun errepidetik, ikusi egiten gintuen. Urte batean Plateau de Beillen (Frantzia), koadrila handia geunden, bere gurasoak eta guzti. Lasterketa bukatu eta gero Haimar guganа etorri, eta berarekin argazki bat atera genuen, denok hunkitu gintuen.

**A.A.:** Luz Ardidenen ere jendez betetako autobusa joan ginen behin Usurbildik. Txirrindulariak bizpahiru segunduz ikusteko egun eta erdi lehenago joan behar zara. Giro izugarria izan genuen trikitixarekin, herri bazkaria… Han ere beherakoan geratu egin zen eta argazkiak ateratzeko aukera izan genuen. Beti ikusten bazaitu keinuren bat egingo dizu. Alde horretatik oso esker onekoa izan da beti.




**Arkaitz Errazkin eta Ainhoa Arrozpide beste herritar askorekin batera ari dira omenaldi-ekitaldiak prestatzen.**

*ARKAITZ ERRAZKIN*

***"Lasterketetan gozatu izan dugu. Berak beti begirada botatzen zigun errepidetik, ikusi egiten gintuen"***

## Azaroaren 15ean zabalduko dute erakusketa eta Haimar Zubeldia bertan izango da

**Egitaraua eskutan hartuta, antolatu dituzuen ekimenekin bere ibilbidea da bereziki nabarmendu nahiko duzuena?**

**A.A.:** Ez dugu bere ibilbide profesionalera mugatu nahi. Maila profesionalera iritsi aurretik ere ibilbide bat egina zuen. Gure ustez ez dugu soilik omenduta ikustarazi nahi profesional mailako urte horiek, baizik eta hasieratik, ibilbide osoa. Lasterketetara joan aurretik zer prestaketa egin behar zituen, ze azpiegitura zeuden, hor zegoen jendea ere ikustaraztea nahi dugu erakusketa horretan. Beti esaten da pertsona baten atzetik lan talde bat dagoela eta hori ere nolabait ikustaraztea nahiko genuke. Horregatik gonbidatzen ditugu herritar guztiak azaroaren 15ean 20:00etan erakusketaren irekierara. Haimar bertan izango da.



**Aurten txirrindularitza profesionala utzi du Haimar Zubeldiak.**

# jasoko du Haimar Zubeldiak

**Haimarrekin hartuemanetan izango zarete. Nola hartu du prestatzen ari zareten herri omenaldia?**

**A.A.:** Prestutasuna erabatekoa izan da. Denari baiezkoa eman dio eta hori ere adierazgarria da. Usurbildarra izanik, omenaldia bere herrian egiteak esanahi berezi bat badu. Berak azken aldian omenaldi ugari jaso ditu. Azkena aurreko igandean, Zarautzen, Aspanogiren eskutik. Txirrindularitzatik aparte, hainbat gizarte eragilerekin konprometitua egon baita. Berak denetan esaten du, omenaldi guztiek hunkitzen dietela. Oso gustura hartzen ditu. Espero dugu bere herrian egingo zaiona ere, berezia izatea. Usurbildarrok badugu berari esker on hori adierazteko gogoa. Jada aurrekari batzuk baditugu. Donostiako Klasikan, Atxegalde parean adin guztietako herritarrak gerturatu ziren bera animatzera. Berak eskua eman nahian, pelotoian jendea zegoen aldetik igaro zen. Igeldoko maldetan eta helmugan egin zitzaion omenaldira ere usurbildar ugari gerturatu ziren.




**"Hasieran egin behar genituen bazkari eta omenaldiari, ekarpen piloa eransten joan gara", antolatzaileek adierazi digutenez.**

*AINHOA ARROZPIDE*

***"Antolakuntzan hasi ginenean bi gauza oso argi genituen. Batetik, herriak egiten dion omenaldia izango zela. Eta bestetik, parte hartzailea izan behar zuela"***

**Hazten ikusi zuen sorterrian amaituko du Haimarrek bere ibilbidea. Haimarren urteotako bidelagun eta herritar oro bildu nahiko duzue hitzorduan.**

**A.A.:** Antolakuntzan hasi ginenean bi gauza oso argi genituen hasieratik. Batetik herriak egiten dio omenaldia izango zela. Antolakuntzan herritar desberdinak gabiltza, eta horrez gain, lan puntualetarako herritar piloa ari dira antolatzen, denak ere prestutasun osoarekin. Eta bestalde, parte hartzailea izan behar zuela. Hasieran egin behar genituen bazkari eta omenaldiari, ekarpen piloa eransten joan gara.

**Hitz gutxitan, nola laburbilduko zenukete Haimar Zubeldiaren ibilbidea?**

**A.E.:** Niretzat eredugarria izan da arlo guztietan, bai txirrindulari bezala, pertsona bezala. 20 urte zail izan dira. Gauza asko pasa dira tartean eta Haimar beti egon da bere puntuan. Beti erakutsi du bere maila altua. Haimar beti izan da txapela kentzeko moduko pertsona.

**A.A.:** Ibilbide hori urtero gertutik jarraitu ez dutenek, ezagutzeko aukera paregabea izango dute antolatu dugun argazki erakusketan. Bere ibilbidea islatu nahi izan dugu. Argazki horiekin ohartzen zara lortu duena eta bere ibilbidea zenbaterainokoa izan den. Txapela kendu eta txapela berari jartzeko modukoa da.

## Hamaika ekitaldi prestatu dituzte

**Azaroak 15, asteazkena**

■ 19:00 Haimarrekin solasaldia Sutegiko auditorioan.

■ 20:00 Argazki erakusketaren irekiera Sutegiko erakusketa aretoan. Haimar bertan izango da.

**Azaroaren 16an eta 17an, ostegun eta ostiralean**

■ 17:30-20:30 Argazki erakusketa Sutegiko erakusketa aretoan.

**Azaroak 18, larunbata**

■ 8:30 Haimarrekin Andatzara txirrindaz. Abiapuntua: Frontoia. Ibilbidearen iraupena 2 ordu eta erdikoa izango da. Deialdi irekia. Bi ibilbide egingo dira, zati bat modu bateratuan.

■ 12:00 Haimarrekin txirrinda ibilbide girotua herrian zehar. Adin guztientzat. Azken metroetan Porrotx bidelagun. Abiapuntua eta helmuga: Dema Plaza.

■ 13:00 Omenaldia frontoian.

■ 14:30 Bazkaria Aginaga Sagardotegian. Txartelak azaroak 4 bitartean Bordatxo Tabernan erosi daitezke.

Prezioak:

-Helduentzako menua: sagardotegikoa, 30 euro.

-Haurrentzako menua: makarroiak, oilaskoa eta izozkia. 12 euro.

Oharra: prezioaren barne, Oiardo Kiroldegitik Aginaga Sagardotegira joan eta gero handik Kiroldegi parera itzultzeko autobus zerbitzua.

# Kirol jarduerak, denontzat

Lasarten ari dira lanean, baina eskualde eta Gipuzkoa osorako, kirol egokitua eskaini eta inklusibitatea sustatzen dute. Oiardo Kiroldegira zabaldu nahi dute haien proiektua; ostiraletan igeriketa ikastaro egokitua egiteko aukera dugu guztiok Usurbildik mugitu gabe. Ostadar inklusioa taldekoak ari dira ekimen guztion sustapen lanetan. Jurgi Olasagasti eta Amaia Cadarsorekin bildu da NOAUA!.

**NOAUA! Nondik sortzen da zuen egitasmoa?**

**Jurgi Olasagasti:** Kirol lizentziatuak gara, kirol egokituan 10 urtetik gora daramatzagu. Kirol egokitu zale amorratuak gara. Eskola kirolean, izaera inklusiboa zuen talde baten hutsunea zegoelako abiatu genuen proiektu hau.

**Kirol egokituaz ari garenean zertaz ari gara?**

**J.O.:** Urritasuna dutenak normalean eskola kiroletik at geratzen dira. Gu haiei Eskola Kirola eskaintzen ahalegintzen gara. Baina ez haiei bakarrik, urritasuna ez dutenei ere. Gero kasu bakoitzari behar duen moduan erantzuten ahalegintzen gara. Orain arte lortu dugu.

**Lasarten zer ibilbide egin duzue?**

**Amaia Cadarso:** Gure proiektua Gipuzkoa osorako da. Zerotik hasi ginen duela urtebete. Lehenengo arazoa leku apropos bat bilatzea izan zen. Lasarte gustatzen zitzaigun, estrategikoki ondo kokatua baitago. Elkarte berri bat sortzekotan egon ginen, baina ez genuen isolaturik egon nahi. Nahiago genuen klub batean sartu. Ostadarren oso aukera polita topatu genuen. Haiei berehala gustatu zitzaien gure proiektua eta atal berri bat sortu dugu, kirol egokitua eta inklusioa bideratzeko. Alde batetik aparteko lan bat bideratzen dugu, multikirola. Baina beste hainbat jardunaldi denok batera egiten ditugu. Esaterako, aurreko igandeko Lasarteko Krossean parte hartu genuen, urritasuna duen eta ez duen jendea.



**"Urritasuna dutenak normalean Eskola Kiroletik at geratzen dira. Gu haiei Eskola Kirola eskaintzen ahalegintzen gara", Jurgi Olasagastik azaldu digunez. Argazkia: Nerea Herrero.**

*JURGI OLASAGASTI*

***"Kirol lizentziatuak gara, kirol egokituan 10 urtetik gora daramatzagu. Eskola Kirolean, izaera inklusiboa zuen talde baten hutsunea zegoelako abiatu genuen proiektu hau"***

## Inklusibitatearen bidetik

**Jada badagoen kirol elkarte batean sartzeak inklusioan sakontzea erraztu dizue.**

**J.O.:** Ostadarrek eskuzabalik hartu gintuen, izugarrizko babesa eman zigun eta ematen ari zaigu. Gure filosofiarekin bat egiten zuen, ze guk ez genuen kirol jarduera bakarra egin nahi, ahal bazen kirol anitzak, multikirola deiturikoa. Ostadarrek ona duena da atal ezberdinak dituela. Inklusioa bilatzerako orduan, urritasunen bat duten pertsonak ere klubak dituen ataletara sartzea errazten du. Baina lanketa bat egin behar da aurretik.

**A.C.:** Batzuetan lan berezia edo ezberdindua egingo dugu baina era berean landu behar dugu inklusioa. Orduan jada aparte geratzen bagara pixka bat arraroa litzateke. Era desberdinak daude egiteko, guk hau aukeratu genuen.

## "Gure eskaintza neska mutilen beharretara moldatzen saiatzen gara"

**NOAUA! Deskribatu zuen asteroko dinamika.**

**Amaia Cadarso:** Gauzak asko aldatu dira. Aurreko urtean 5 laguneko talde batekin hasi ginen. Ordutik 13 lagunek probatu dute. Aurten 10 ume ditugu asteazkenetan. Astelehenetan multikirol indibiduala egiten dute eta 4 neska-mutil etortzen dira. Ostiraletan Usurbilen igeriketa egiten dugu.

**Jurgi Olasagasti:** Eta asteazkenetan adimen urritasuna duten pertsonentzako atletismoa.



**Ostiraletan igeriketa egiten dute Usurbilen. Argazkia: Juan Luis Asensio.**

**Oso errealitate ezberdinez ari gara. Multikirolaren egitasmo honek errealitate ezberdin horiei irtenbidea emango die?**

**A.C.:** Gure eskaintza neska mutilen beharretara moldatzen saiatzen gara. Orain gutxi, kide batek surfa probatu nahi zuen eta guk horretarako baliabideak eman dizkiogu.

**Beraien nahietatik abiatzen zarete.**

**A.C.:** Saiatzen gara ahal den neurrian hala eskaintzen.

**J.O.:** Talde baten barruan, bakoitzaren kirol ibilbide, garapen indibidual hori ere lantzen dugu.

# “Kirolaz gain, autonomia asko lantzen dugu”

**Urtebeteko ibilbidea osatu duzue jada. Emozionalki ere eragina izango du partaideengan?**
**Amaia Cadarso:** Gurasoak oso pozik daude eta haien seme alabak oso pozik ikusten dituztela adierazten digute.
**Jurgi Olasagasti:** Nolabait gurasoengandik urruntzeko aukera eskaintzen diegu haurrei. Hartara, nolabaiteko autonomia maila txiki bat lantzeko aukera dute. Ikusten dugu gai direla elkarri lagundu eta gauzak aurrera ateratzeko. Kirolaz gain, autonomia hori asko lantzen dugu. Helburuetako bat da.
**A.C.:** Aurten kanpora joan nahi dugu. Autobusa hartu eta Madrilera edo Bartzelonara joan eta han asteburu osoa pasa etxetik kanpo. Kirola egin eta kirolaren bidez jende berria ezagutu.

**Usurbilekin ere lotura du zuen egitasmoak?**
**J.O.:** Ostadar Lasarteko taldea da, baina gurea Gipuzkoa mailako elkarte bat da, eta ondorioz baita eskualdekoa ere. Ezinezkoa litzateke elkarte bat herri ezberdinetan osatzea. Horregatik, Usurbilgo haurrek parte hartu nahi badute, hemen gaude. Kirol egokitua, igeriketa egiteko aukera dute Oiardo Kiroldegian. Oso ondo ikusi dute bertan egitasmo hau eta babestu dute.
**A.C.:** Bai haurrak zein helduak. Taldeak osatzeko aukera ezberdinak ditugu. Eskatu lasai.
**J.O.:** Gauza asko eskaini nahi ditugu askotan, baina jende guztiarengana heltzea zaila egiten zaigu. Denei zuzendutako eskaintza luzatu arren, batzuk ez dute beretzat bezala onartzen. Jendeak nahi badu halako eskaera bat egin dezala.


**“Gurasoak oso pozik daude eta haien seme alabak oso pozik ikusten dituztela adierazten digute”. Argazkia: Nerea Herrero.**

*IGERIKETA, OIARDON*

***“Usurbilgo haurrek parte hartu nahi badute, hemen gaude. Kirol egokitua, igeriketa egiteko aukera dute Oiardo Kiroldegian”***

# Amaia Cadarso: “Taldean urritasuna ez duten haurrak daude. Eta gustura ari dira”

**Zuen eskaintza denontzako baita.**
**Jurgi Olasagasti:** Gero askotan badaude zenbait pertsona urritasuna dutenekin ez dutena nahi partekatu beren esperientzia, nolabait, kako–tsa artean, atzerapausoa iruditzen zaielako. Baina gero, halako esperientzia bat bizitzean jabetzen zara halako errealitate bat beste inon ez dela eskaintzen. Orduan zer da atzerapauso edo aurrerapauso bat?
**Amaia Cadarso:** Taldean urritasuna ez duten haurrak daude. Eta gustura ari dira.

**Bestelako balore hainbat landuko dituzue.**
**J.O.:** Enpatia, elkartasuna, desberdinarekiko errespetua.
**A.C.:** Balio erantsia du. Ez da bakarrik kirol jarduera bat egitea, balore horiek guztiak ere horren barne daude.

**Kirol egokitua eskaintzeko baliabide gehiago beharko dituzue?**
**A.C.:** Aulkiak lortzeko, begiraleak ordaintzeko. Profesionaltasuna ordaindu behar da. Bidaiak, dena. Kirol egokitua egitea oso garestia da eta laguntza behar da. Dirurik gabe ezin dugu ezer egin.
**A.C.:** Diru-laguntzak lortu ditugu, bestela ezinekoa litzateke. Eskerrak eman nahi dizkiegu, Michelin, IK4 IDEKO, La Caixa, Kutxa Fundazioa, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa, Estudio Pindar, Lasarte-Oriako Udala, Usurbilgo Udalari.



**Informazio gehiago:**
Youtube, Facebook, Twitter, Instagram: @ostadar.inklusioa / @ostadaregokitua
943 36 04 33.

# Laguntza areagotzeko deia

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, elkarretaratze jendetsua egin zuten urriaren 27an Mikel Laboa plazan, euskal presoen eta haien senideen eskubideen alde.

"Euskal Herriko herritarren gehiengo handi batek euskal presoak Euskal Herriratzea eta gaixo daudenen askatasuna exigitzen du aspalditik baina bi estatuen blokeo egoerak bere horretan darrai", salatu zuten. Horren adibide, hainbat presoren osasun egoera larria. Batetik, bezperatik Ocaña I espetxean dagoen Mikel Otegi presoak bihotzekoak jota Toledoko ospitalean dago. Ibon Iparragirre ondarrutarraren egoera larriaz ohartarazi zuten baita. HIESA azken fasean du, "edozein infekziok heriotzara eramateko arrisku bizian dagoela, are eta gehiago kartzela bezalako leku batean. Espetxe Arautegiak zein Kode Penalak egoera krudel horri amaiera emateko artikuluak aurreikusten dituzten arren, espetxean mantentzen dute". Jada 19 euskal preso politiko hil dira espetxeetan, "azkena Kepa del Hoyo. Kolektiboko presoen kopurua 312koa da, baina kopurua jaisten ari den neurri berean, beharrak ugaldu egiten dira". Datu zehatzak aipatu zituzten; 91 presok gaitzen bat dute, haietatik 13k gaixotasun larriak, antzeko baldintzetan beste 8 daude.




**Urriaren 27an, euskal presoen eta haien senideen eskubideen aldeko elkarretaratzea egin zuten Mikel Laboa plazan.**

*USURBILEN NAHI DITUGU*

***"Orain da garaia presoen osasun fisiko eta psikikoaren arazoei erantzuteko, eta gure senitarteko presoek behar duten laguntza juridikoa emateko"***

**Abenduaren 9an, Parisera**

Testuinguru honetan Etxerat elkarteak presoen laguntza juridikoa eta osasun asistentziaren ardura bere bizkar hartzea erabaki duela berri eman zuten. Erronka berri honetan inplikatzea eta "bakerantz eta gatazkaren ondorioen behin betiko ebazpenerantz urrats atzeraezinak ematen laguntzea" eskatzeko eremu ezberdinetako eragileekin biltzekoa da Etxerat datozen hilabeteotan.

"Euskal gizarteari, berriz, bere laguntza areagotzeko eskatu nahi diogu. Orain da garaia presoen osasun fisiko eta psikikoaren arazoei erantzuteko, eta gure senitarteko presoek behar duten laguntza juridikoa emateko. Denon artean, salbuespeneko legeria desblokeatzea lortu behar dugu. Zentzu horretan, gogoratu abenduaren 9rako bakearen artisauek Parisen antolatu duten ekimena. Zuen agendetan apuntatu eguna, erronka berri honi aurre egiteko".

# EHBilduren mintegia legegintzaldiaz

2015-19 legegintzaldia erdibidera heldu den honetan, orain arte egindakoaz balantzea egin nahi du EHBildu Usurbilek herritarrekin. Horretarako mintegia deitu du azaroaren 11rako (larunbata), 09:30-13:00 artean Udarregi Ikastolan. Paperean nahiz online bidez anonimoki erantzun daitekeen galdetegi bat prestatu du koalizioak. Udal gobernuaren lanketa arloka, auzoka edota gobernantza eredua batetik hamarrera puntuatu daiteke. Legealdiko ekimen garrantzitsuenak, gabeziak edota irakokizunak proposatu daitezke, bide hauetatik:

**EHBildu sarean:**
Twitter: @EHBilduUsurbil
Facebook: facebook.com/EuskalHerriaBilduUsurbil

## "Lan duina, bizi duina" LAB-en ekimen ibiltaria

Urriaren 16az geroztik, "Lan duina, bizi duina" aldarripean LAB sindikatuak prekarietaren aurka Euskal Herrian barrena antolatu duen ekimen ibiltaria gure artera helduko da hurrengo astean. Azaroaren 3an eta 4an Donostian hainbat ekimen burutu ostean, hilaren 6an iragarri dutenez, "Michelingo azpikontratetan ematen den egoera salatuko dugu. Horrez gain, garraio publikoan izan diren murrizketa eta enplegu suntsiketak azaleratuko ditugu". Hori guztia Lasarten. Biharamunean, azaroaren 7an Hernanin, "eguna lan osasunaren egoera salatuz hasiko dugu. Ostean, "Ekintza sindikal berria" tailerra egingo dugu. Bestalde, ekitaldi nazionala burutuko dugu Errusiako Iraultzaren 100. urteurrena dela eta". LAB sindikaturen ekimen ibiltari hau abenduaren 6an amaituko dute Durangon.

## Gripearen aurkako kanpaina

Abenduaren 23ra arte luzatuko da gripearen aurkako txertaketa kanpaina. Orain artean bezala, deialdia bereziki arrisku taldeei zuzendua dago; hau da, 65 urtetik gorakoei, gaixotasun kronikoak dituztenei, haurdun dauden emakumeei eta osasun arloko langileei.

Estreinakoz ordea, kanpaina euskal gizarte osoari zuzendua egongo da.

**Hitzordua eskatu behar da**

Txertoa hartzeko aurrez hitzordua eskatu anbulatorioan edo bertara deituta; 943 36 20 13.

# Bi herritar, euskal selekzioak irabazi duen Munduko Kayak-surf txapelketan

Munduko txapelduna dugu Euskal Herriko selekzioa kayak-surf–ean. Ipar-Irlandan, Portrush hirian ospaturiko txapelketan taldeko lehian nagusitu da, bosgarrenez bere historian. Talde horretan parte hartu dute bi herritarrek; Xabi Olanok eta Irati Bordagarayk. Biek ere merezitako sari bana jaso dute. Xabi Olanok open HP (txalupa laburra) kategorian brontzezko domina eskuratu du eta Open IC (txalupa luzeak) kategorian aldiz zazpigarren postua erdietsi du. Bestalde, Irati Bordagarayk emakumeen HP mailan zilarrezko domina lortu du. Zorionak!


Xabi Olanok eta Irati Bordagarayk Munduko Txapelketa irabazi dute Euskal Selekzioko gainontzeko kideekin batera.

Bi urtean behin ospatzen den txapelketaren edizio honetan, Xabi Olanok NOAUA!ri berri eman dionez, "zonalde haize–tsua eta hotza den arren, kalitatezko olatuak egon dira eta ikuskizuna eman dute haraino mundu osotik leihatzera joan diren partaideek. Denera 15 herrialde desberdineko 130 kayak-surflarik hartu dute parte".

**Bi urtez behin ospatzen da**

Txapelketaren nondik norakoen xehetasunen berri eman digu baita. "Kayak-surf–eko txapelketa bi urtean behin ospatzen da, eta norgehiagokak launakako txandetan egiten dira, errondaz erronda. Txandek 20 minutu irauten dute eta bakoitzetik bi hoberenak sailkatzen dira hurrengo errondara, bakoitzaren bi olatu hoberenak gehituz. Halaxe burutzen da maila eta kategoria desberdinetan, zeinak txalupa labur (HP, 2'7m-tik behera) eta txalupa luzetan (IC, 3 metrokoak) banatzen diren".



# Alejandro Tapia omenduz hasiko da Kulturaldia

Izen propio mordoarekin dator ate joka dugun NOAUA!ren Kulturaldia. Baina aurtengoan haietako bat nabarmendu nahi genuke; iazko abenduan zendu zen Alejandro Tapia margolari aginagarra. Bera omentzeko baliatuko dugu ostiral honetan bertan, azaroaren 3an hasiko dugun Kulturaldia.

Bere aldeko omenaldi ekitaldi batek abiatuko du aurtengo eskaintza oparoa, eta Sutegin bere lan erakusketa bat izango da ikusgai azaroaren 3tik 12ra. Tapiaren senide eta inguruaren, Usurbilgo Udalaren eta NOAUA! K.E.-ren elkarlanez aurrera atera dira aginagarraren omenezko ekimenok.

Eta elkarlanaren emaitza dira baita, Kulturaldian zehar izango ditugun beste hainbat ekitaldi ere. Alkartasuna Kooperatibarekin batera, “Landareak lantzen” liburu berria aurkeztuko digute Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak larunbatean. Orbeldikoek, euskal dantza tradizionaletan oinarrituriko saio ederra eskainiko digute astebete barru. Bota Punttuba eta Kantu Taldearekin batera bertso-kantu-jira berezia antolatu dugu. Jon Maia eta Alaia Martin bertsolariak Usurbila datoz azaroaren 5ean, kantu zaletuekin batera eguerdi parteko poteo ordua girotzera. Biak une honetan, Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetan dira. Abenduaren 17an BEC-en ospatuko den final handiaren atarian beraz.

**Bi estreinaldi**

Estreinaldiei tartea ere egingo diegu Kulturaldi honetan. Batetik, iragarri genizuen moduan, urriaren 20an Euskal Herriko eta nazioarteko hainbat zinemetan estreinatu zen “Handia” filma aurtengo Kulturaldira dakarkigu. Proiektuko kideak gure artean izango ditugu proiekzioaren aurretik.



Ostiral honetan, Alejandro Tapiaren omenezko ekitaldia Sutegiko auditorioan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Ondoren zabalduko dira erakusketako ateak. Azaroaren 12ra arte iraungo du erakusketak.

**OMENALDIA SUTEGIN**

***“Iazko abenduan zendu zen Alejandro Tapia margolari aginagarra. Bera omentzeko baliatuko dugu ostiral honetan bertan, azaroaren 3an hasiko dugun Kulturaldia”***

Aste hasieratik nabaria izan da hitzordu honek sortu duen interesa. Sarrerak etenik gabe aritu gara saltzen. Eskuratu ez baduzu beraz, mugi agortu baino lehen.

**“Erradikalak gara” Sutegin**

Eta estreinaldiez ari garela, Joseba Tapia eta Besamotzak taldekoen egitasmo berriaz zuzenean gozatzeko aukera izango dugu Kulturaldi honetan. Musikaren atala borobiltzeko, Hesian taldeko kide eta egun, ETB-ko Irutxulo saioko aurkezle Zuriñe Hidalgorekin solasean aritu eta bere ibilbide profesional zein pertsonala ezagutu ahalko dugu azaroaren 9an.

Eta Lasarte-Oriako bi lagun, Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal antzerkilari eta ipuin kontalaria, “Erradikalak gara” bertso eta bakarrizketa saioarekin etorriko dira Sutegira hilaren 11n.

## Sarrerak merkeago NOAUA! kideentzat

Abiatzear dugun NOAUA!ren Kulturaldiko hainbat ekitaldietarako sarrerak eskuratu beharko dira. Salgai dituzue jada Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. Bazkideok merkeago izango dituzue txartelok, NOAUA!n bertan erosten badituzue. Une ezin aproposagoa beraz, NOAUA! kide ez bazara, bazkidetza bideratzeko. Bulegora etorri eta segituan tramitatuko dizuegu.



Bazkideok merkeago izango dituzue txartelok, NOAUA!n bertan erosten badituzue.

# Kulturaldia, egunez egun



Igandean, 'Handia' filma Sutegin. Hauxe da sinopsia: "Lehen Karlistaldian borrokatu ostean, Martin Gipuzkoako bere etxera itzuliko da, eta han, harrituta, bere anaia Joakin ohi baino askoz ere handiagoa dela aurkituko du. Mundu osoak Lurreko gizon handiena ikusteko ordaindu nahi izango duelakoan, bi anaiek bidaia luze bati ekingo diote, Europan zehar".

## Azaroak 3, ostirala

**19:00 Alejandro Tapiaren omenezko ekitaldia Sutegiko auditorioan.**

■ Ondoren, erakusketaren irekiera.

■ Antolatzaileak: Udala, Alejandro Tapiaren familia eta ingurua eta NOAUA! Kultur Elkartea.

## Azaroak 4, larunbata

**11:00 "Landareak lantzen" liburu berriaren aurkezpena.**

■ Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga, Potxoeneko goiko gelan.

■ Sarrera: doan.

■ Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea, Alkartasuna Kooperatiba eta Usurbilgo Udala.

## Azaroak 5, igandea

**12:00 Kantu-Bertso-jira** Mikel Laboa plazatik, Jon Maia eta Alaia Martin bertsolariekin.

Bertsolari Txapelketa Nagusi betean gauden honetan, lehiatik haratago, lagun arteko bertso giro goxoaz gozatzeko aukera izango dugu azaroaren 5ean, Jon Maia eta Alaia Martinen eskutik.

■ Antolatzaileak: Kantu Taldea, Bota Punttuba eta NOAUA! Kultur Elkartea.

**19:00 "Handia" pelikula Sutegiko auditorioan.**

■ Sarrera: 6 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

■ Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea.

## Azaroak 9, osteguna

**19:30 Zuriñe Hidalgorekin solasaldia, Sutegiko auditorioan.**

■ Sarrera: doan.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

## Azaroak 10, ostirala

**19:30 Orbeldi dantzan, Sutegiko auditorioan.**

■ Sarrerak: 3 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 1 eurotan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

■ Antolatzaileak: Orbeldi D.T. eta NOAUA! K.E.

## Azaroak 11, larunbata

**20:00 "Erradikalak gara" emanaldia Sutegiko auditorioan.**

■ Parte hartzaileak: Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal antzerkilari eta ipuin kontalaria.

■ Sarrerak: 7 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta NOAUA!ko egoitzan). NOAUA!ko bazkideek 5 eurotan erosi dezakete NOAUA!ko egoitzan aldez aurretik.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.

## Azaroak 12, igandea

**19:00 Joseba Tapia eta Besamotzak taldekoen kontzertua Sutegiko auditorioan.**

■ Sarrerak: 10 euro (Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan). Noaua!ko bazkideek 8 eurotan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.



Zuriñe Hidalgo kantariak eta aurkezleak solasaldia eskainiko du Sutegin. Azaroaren 9an, 19:30ean.

## Sutegiko erakusketa

### Azaroak 3-12

**Alejandro Tapiaren lanen erakusketa Sutegiko erakustaretoan.** "Alejandro Tapiaren lanak ikusi ahal izango ditugu. Berak bereziki maite zituen lanak eta inoiz erakutsi gabeko lanak izango ditugu erakusgai".

Noiz:

■ Azaroaren 3an: 18:00-20:00.

■ Azaroaren 4, 5, 11, eta 12an: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.

■ Azaroaren 8, 9 eta 10ean: 18:00-20:00.

■ Antolatzaileak: Udala, Alejandro Tapiaren familia eta ingurua eta NOAUA! Kultur Elkartea.




607 609 379 / 943 36 03 21

www.mintzalagun.blogspot.com

usurbil@aek.eus

mintzalagunak gara

Usurbilgo Udala

aek

Etumeta Euskaltegia
www.muntteri.blogspot.com

noaua

praktikatu

# 155. artikuluaren aurkako manifestazioa deitu dute larunbaterako Bilbon

Kataluniako errepublika aldarrikatu zen egun berean, espainiar estatuak Espainiako Konstituzioko 155. artikulua aplikatzea erabaki zuen. 155.aren aurka manifestazioa deitu dute larunbat honetarako, azaroak 4, 17:00etan Bilbon. Kasillatik abiatuko da mobilizazioa, "155.ari ez. Demokrazia eta erabakitzeko eskubidea" aldarripean.



Kasillatik abiatuko da mobilizazioa, "155.ari ez. Demokrazia eta erabakitzeko eskubidea" aldarripean.

Espainiako Gobernuak Kataluniako autogobernua bere gain hartu izana, izandako espetxeratzeak eta Kataluniako herria pairatzen ari den errepresioa salatuko da. Manifestazioarekin bat egin dute Gure Esku Dagok, EHBilduk edota euskal gehiengo sindikalak. Tartean, Usurbilgo Gure Esku Dagok eta Usurbilgo EHBildu koalizioak.

**Asteburu honetan**
**13 galdeketa Euskal Herrian**

Galdeketen olatu berria datorkigu igande honetan, azaroaren 5ean. 13 herrietan Euskal Herriaren etorkizunaz erabakiko dute: Andoain, Areatza, Atxondo, Beizama, Berango, Erandio, Elantxobe, Galdakao, Getxo, Mundaka, Ibarrangelu, Leioa eta Otxandion. Guztira 160.000 herritarrek hitza hartzeko aukera izango dute. Dagoeneko 165 herrietan egin dira galdeketak, eta 155.000 lagunek parte hartu dute.

**Udalbiltzaren adierazpena**

"Herritarren borondateak mugarik ez duela erakutsi duzue. Zorionak Katalunia! Endavant!", mezu honekin eman dio Gure Esku Dagok ongi etorria Kataluniako errepublikari.

Usurbilgo Udala kide duen Udalbiltzak ere adierazpen instituzionala kaleratu du Kataluniako errepublika aldarrikatu ostean, "eta baita Euskal Herriarentzat ere duen esanahaiagatik". Kataluniako errepublikari aitortza adierazi dio, eta erabaki historiko hau hartzea ahalbidetu duen herritar eta eragile oro zoriondu ditu. Modu berezian, azken urteotan lanean aritu diren udal hautetsiak, "erakutsi duten kemen eta konpromisoagatik. Eredu dira guretzat". Herritarren borondatea errespetatzea eskatu dute, Estaturiko gabeko nazioek etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea aldarrikatzearekin batera. Adierazpena Kataluniako erakunde nagusietara, tartean Kataluniako Independentziaren aldeko Udalerrien Erakundera (AMI) helaraziko du Udalbiltzak.

## Usurbildik autobusez joateko aukera

Bilboko manifestaziora joateko bus zerbitzua antolatu du Usurbilgo EHBilduk. Larunbat arratsaldeko 15:30etan abiatuko da Oiardo Kiroldegi ataritik. Izen ematea, ostiral arratsaldeko 20:00ak arte, Aitzagan, Bordatxon eta Txiribogan.

## GuraSOS, Gasteizko Legebiltzarrera

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkari politikoekin Gasteizko Legebiltzarrean biltzekoa zen ostegun honetan GuraSOS. Hitzordu horretan, iragarri dutenez, "GuraSOS-ek prestatu duen txosten bat aurkeztuko du zeinean Eusko Jaularitzak zein Eusko Legebiltzarrak Gipuzkoako erraustegiaren inguruko gatazkan duen ardura eta instituzio foralek konpetentzi autonomikoetan egindako inbasioa salatzen dituen eta era berean, konponbide bat proposatuko du". Xehetasun gehiago, datorren astekarian.


Espainiako Senatuan izan ziren duela hilabete gutxi.









# Herriko bederatzi talde aurkeztu dira Buruntzaldeko ginkanan

Estreinakoz, Buruntzaldeko Udaletako euskara batzordeek eta Kutxa Ekoguneak, euskararekin, hizkuntza aniztasunarekin eta hizkuntza-ekologiarekin, euskararekin eta euskaraz gozatzeko 12-16 urte arteko gazteentzat antolaturiko lehiaketan parte hartzeko eginiko deialdiak arrakasta itzela izan du Usurbilen.

**Talde gehien aurkeztu duen herria**

Biztanle gutxien dituen eskualdeko udalerrien artean egonik ere, talde gehien osatu dituen herria dugu Usurbil. Zenbakiek argi diote. 31 lehiakide talde osatu dira Buruntzaldean; 6 Andoainen, 2 Astigarragan, 5 Hernanin, 6 Lasarte-Orian, 3 Urnietan, eta adi, 9 Usurbilen! Amaka-k, Browstons, JAJAxD, Browston, Santxeski, Negu, Chochin, Egurre eta Txaparroak izenekoak hain zuzen. Sarean, euskararenginkana.eus atarian dituzue taldeok jada egin dituzten aurkezpen bideoak.



**euskararenginkana.eus atarian dituzue taldeok egin dituzten aurkezpen bideoak.**

*USURBILGO 9 TALDEAK*

***"Amaka-k, Browstons, JAJAxD, Browston, Santxeski, Negu, Chochin, Egurre eta Txaparroak"***

"Mundu mailako begiradatik, Buruntzaldea eskualdeko begirada eta praktiketara egingo da salto", ekimen honetan.

### Bi txandatan

Bederatzi taldeek bi fasetan jokatuko dute txapelketa:

**Lehen fasea:**

Internet bidezko frogak gainditu beharko dituzte astero, urriaren 23tik azaroaren 19ra.

**Bigarren fasea:**

Lehen fasean puntuazio hoberena eskuratu duten 4 talderen arteko finala abenduaren 1ean Oronan. Irabazleak 1.500 euroko saria eskuratuko du. Bigarren talde sailkatuak, 500 euro.

**Informazio gehiago:**

euskararenginkana.eus

## Sexu Aholkularitza Gunea ezagutarazteko ekitaldia



**"Sexijentziak askatuz" bakarrizketaz gozatzeko aukera izan zuten.**

Sexu Aholkularitza Gunera doan lagunaren bizipenekin osaturiko "Sexijentziak askatuz" bakarrizketa saioaren eta solasaldiaren bidez, Gizarte Zerbitzuen egoitzan kokatua dagoen gunearen nondik norakoen berri izateko aukera izan zuten urriaren 27an Sutegira hurbildutakoek.

## Anerreka Ingurumen Elkartea, martxan



**Urriaren 27an Potxoenean batu ziren.**

Usurbilgo ur, aire eta lurraren kalitatearen alde, guztion osasunaren alde lan egiteko xedez osatu dute elkartea.

NOAUA!n zabaldutako deialdiari jarraituz, dozena bat lagun batu ziren Potxoenean. Elkarte berriaren nondik norakoak aurkeztu zituzten bertan.

# Akuariumen izan ginen bisitan

Kaixo! Udarregiko HH5eko haurrak gara eta gure irteera baten berri eman nahi dizuegu. Akuarium-era bisitan joan ginen eta han ikusitako arrain eta itsasoko bizidunekin liluratuta etorri ginenez, jolas bat proposatzen dizuegu bertan ikusitako arrain batzuekin. Izenei bokalak falta zaizkie eta ea asmatzen dituzuen!

P_ILAZ_ _RRAIN_
_TS_S Z_LD_A
GL_B_ ARR_IN_
ZIR_J_U _RRA_NA
K_T_ ARRAINA
X_G_X_R _RRAIN_
B_H_ _RRA_NA
M_RR_Z_A

**HH5eko ikasleak**



**"Akuarium-era bisitan joan ginen eta han ikusitako arrain eta itsasoko bizidunekin liluratuta etorri ginen".**

# Azaroko larunbatak Aginagan, Antxomolantxakoenak

Aginagako elkarteak haur eta gaztetxoei edota haien gurasoei zuzenduriko hainbat ekitaldi antolatu dituzte hilabete honetako asteburuetarako:



**Azaroaren 26an, *Irabazle eta galtzaile* filma eskainiko dute Aginagako ludotekan.**

**Azaroak 4, larunbata**

■ 17:30 "Martin Bertso" ikuskizuna Aginagako ludotekan. Sarrera doan.

**Azaroak 11, larunbata**

■ 17:30 DYA-ren saioa haurrentzat: "DYA-ren gorputz higiene clowneko saioa umeentzat. Jarduera honen helburua umeei norbere higienearen oinarrizko arauak zeintzuk diren helaraztea da". Sarrera doan.

**Azaroak 18, larunbata**

■ 17:30 "Irrien sukalde txokoa" Aginagako ludotekan. "Haurrek sukalde txokoan, pizza, taloak, zurrupakiak edo pintxoak egiten ikasiko dute". Sarrera doan.

**Azaroak 25, larunbata**

■ 09:30-13:30 "DYAko lehen sorospenak haurretan" Aginagako ludotekan. "Helburua, gurasoei umeen larrialdi eta istripuen aurrean nola jokatu ezagutzak eta trebetasunak helaraztea da". Izen ematea azaroaren 22ra arte, 677 882 321 telefono zenbakian edo ludotekan.

**Azaroak 26, igandea**

■ 17:30 "Irabazle eta galtzaile" familia osoari zuzenduriko film proiekzioa Aginagako ludotekan. Sarrera doan.

Antolatzailea: Antxomolantxa.

## Bost greba egun, unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan

Udaberri partean egin zuten moduan, greba egun gehiago deitu dituzte LAB, ELA eta STEILAS sindikatuek datozen asteotarako, unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoan, tartean Zubieta eta Aginagako eskoletan. Eremu honetan murrizketak aplikatzeari utzi, hezkuntzara inbertsio handiagoa bideratu edo langileen lan baldintzak hobetzea eskatzen dute. Honatx iragarri dituzten greben egutegia:

■ Azaroak 9: Haurreskolak.

■ Azaroak 16: garbitzaileak eta sukaldariak.

■ Azaroak 23: heziketa bereziko langileak.

■ Azaroak 30: irakaskuntza.

■ Abenduak 12: kolektibo guztiak.

## Ipuin kontaketak Sutegin

Bi ipuin kontalariren bisita iragarri dute Sutegi udal liburutegitik asteotarako:

**Azaroak 8, asteazkena**

18:00 Miriam Mendozaren ipuin kontaketa saioa HH4koentzat.

**Azaroak 15, asteazkena**

18:00 Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa HH5ekoentzat.

**Antolatzailea:**

Sutegi udal liburutegia.



**Miriam Mendoza azaroaren 8an izango da Sutegin.**

# Zuberoako Eperra ikastola laguntzeko elkartasun kanpaina abian da

Tokiko ekoizpena ezagutzera eman eta Zuberoako Eperra Ikastolaren egoera ekonomikoa hobetzen laguntzeko 2003az geroztik egin izan den elkartasun kanpaina bueltan dator Usurbila, Nafartarrak taldekoen eskutik. Berrikuntzekin aurtengoan. Oraingoan, Zuberoko produktu goxo askoez hornituriko saskiez gain, Hebentik elkarteak Eperra ikastolako haurrekin landutako abestien CD-a ere erosi ahalko baituzue.


Eperra ikastolaren aldeko otarrak abenduaren 11ra arte eska daitezke. Abenduaren 17an banatuko dira, San Tomas azoka egunean.

Eskaerak abenduaren 11ra arte bidera ditzakezue NOAUA!n, Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan. Baita email bat bidalita ere lonxo@telefonica.net helbidera. Aldaketarik ez bada, iaz bezala, abenduaren 17an ospatuko dugun San Tomas Azokan egingo da eskaturiko produktuen banaketa.

**"Behin bazen ikastola" CD-a**
Zehaztasunak: Hebentik elkarteak Eperra ikastolako haurrekin osatua. Prezioa: 10 euro.

**Ahüzki otarra**
Produktu sorta: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa artisanala (150 g), eztia (500 g), euskal xerriki patea (200 g), euskal xerriki odolkia (200 g). Prezioa: 40 euro.

**Irati otarra**
Produktu sorta: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa bat artisanala (150 g), eztia (500 g), euskal xerriki lukainkak (400 g), axoa xahalki xehatua saltsan (640 g). Prezioa: 52 euro.

## Errigoraren otarrak, NOAUA!n eskuragarri

Otarren eskaerak kultur elkarte honen bidez bideratu ahalko dituzue, urriaren 26tik azaroaren 14ra. Ordainketak otarrak jasotzerakoan egin beharko dira, abenduan. Bi produktu kutxa izango dira aukeran; zuria eta beltza. Zuriak berrikuntzak dakartza, beltzak orain arteko produktuak:
-Kutxa zuria: orburuak, zainzuriak, pikillo piperrak, ardoa, ozpina, melokotoia almibarrean, pasta, arroza, pikillo piper mamia, patxaran pastak, molineritoak, tomatea olioarekin eta teilak.
-Kutxa beltza: orburuak, zainzuriak, pikillo piperrak, ardoa, ozpina, melokotoia almibarrean, potxak, aran marmelada, mahats zukua, almendrak, oliba olioa, pikillo saltsa, kardoa.
Prezioa: 50 euro.
Eskaerak: NOAUA!ren egoitzan, urriaren 26tik azaroaren 14ra.

**Informazio gehiago:**
errigora.eus

# Astelehenean, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak deitutako hurrengo hitzordua, azaroaren 6an, datorren astelehenean beraz, 18:00-20:30 artean anbulatorioan. Gogoan izan, odola eman ahal izateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar direla:
- 18-70 urte artean izatea.
- 50 kilo baino gehiago pisatzea.
- Osasunez ondo egotea eta gure odolaren bitartez kutsatu daitekeen gaixotasunen bat hartzeko bidea izan litekeen arrisku praktikarik egin ez izana.

**Gripearen aurkako txertoa**
Kanpaina abian da beste urte batez. Ohi bezala, 65 urtetik gorakoei, gaixotasun kronikoak dituztenei, haurdun direnei eta osasun arloko langileei zuzendua dago bereziki. Baina aurtengoan, bereziki gizarte osoari zuzendu nahi dio kanpaina Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Txertoa hartzeko hitzordua eskatu aurrez anbulatorioan edo 943 362 013 telefono zenbakian.

## "Nola ospatuko zenuke Euskararen Eguna?"

Aurten ere, Usurbilgo artixtak Euskararen egunaren aitzakian mugitzen hasi dira. "Hala izanda, herritar guztiei galdera bat luzatu nahi diegu: Nola ospatuko zenuke Euskararen Eguna?

Galdera horrekin Usurbilgo herritarrak egun horretan zer egingo lukeen jakin nahi dugu, eta ospakizun originalena edota egokiena antolatuko genuke abenduaren 3an".

Boto kutxak Sutegi udal liburutegian, AEKn eta Udarregi ikastolan aurkituko dituzue, eta azaroaren 24ra arteko epea izango da bozkatzeko.


Boto kutxak herritarren proposamenen zain dira.

## Argazki Lehiaketa Santuenean

"Udazkena" hizpide duen Argazki Lehiaketa antolatu du Santuenea Elkarteak, 4-14 urte arteko haur eta gaztetxoentzat. Azaroaren 15etik 30era aurkeztu ahalko dira argazkiak. Informazio gehiago Santuenea Kultur Elkartean.


'Udazkena' , argazki lehiaketan landu beharko den gaia.

# Larruzko paletan Pagazpe garaile

Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketaren baitan, gizonezkoen larruzko paletako nagusien Lehen eta bigarren mailako finalak irabazi ditu Pagazpek. Honatx urriaren 22an Oiartzungo Madalensoron jokaturiko finalon emaitzak:

■ Lehen mailako finala:
Pagazpe (Clement-Arruti)35
Gazteleku (Altuna-Lete) 18
■ Bigarren mailako finala:
Pagazpe (J. Begiristain-M. Begiristain) 35.
Gazteleku (Iradi-Rekalde) 27.



Atzekaldean dira Pagazpe taldeko pilotariak. Gipuzkoako Txapelketan, Lehen zein Bigarren Mailako finaletan nagusitu ziren.

# Arabako Elgeako zerra ezagutzeko aukera

Azaroaren 8ra arteko epea duzue, Andatza M.K.T.-k antolaturiko hurrengo txangorako:



78 errota daude Elgeako zerran, 25 kilometrotan banaturik.

**Elgeako zerrara txangoa**

■ Eguna: azaroak 12, igandea.
■ Abiatzeko hitzordua: 07:30ean Oiardo Kiroldegitik, autobusez.
■ Zehaztasunak: "Azaroaren 12an Arabako Elgeako zerra ezagutzeko Larreatik Araiaraino joango gara".
■ Izen ematea: azaroaren 8a baino lehen, 10 euroko ordainketa egin kontu zenbakiotako batean:
Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321
Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805
■ Oharrak:
-Plaza kopurua, mugatua.
-Otordua ibilbidea amaitutakoan egingo dugu.
-Janaria norberak eraman beharko du.
-Edaria Andatza M.K.T.-k eramango du.
-Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin harremanetan jarri anda–tza@hotmail.com helbidean".

**Datozen hitzorduak**

■ Azaroak 12: Elgeako zerra.
■ Azaroak 23, 24, 25: Mendi Astea.
■ Abenduak 17: Hendaia-Ibardin.

**Informazio gehiago:**
andatzamendizale.info
Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## Eskubaloia Kiroldegian

**Azaroak 4, larunbata**
■ 09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea:
Udarregi 5B-Urnieta 5
Udarregi 5C-Langile A
■ 10:30 Alebin neskak, Buruntzaldea:
Udarregi 6A-Urnieta 6
Udarregi 6B-Andoain 6
■ 11:45 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi B-Urola
■ 13:00 Infantil neskak, Gipuzkoa: Udarregi A-Legazpi
■ 15:45 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Ereintza
■ 17:30 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Ereintza
■ 19:30 Senior mutilak, 1. nazionala: Usurbil K.E.-Barakaldo

## Futbola Haranen

**Azaroak 4, larunbata**
■ 09:30 Alebin mutilak:
Udarregi 5B-Urnieta 5B
Udarregi 6A-Landaberri 6B
■ 10:30 Infantil neskak:
Usurbil F.T.-Añorga C
■ 11:30 Infantil mutilak:
Usurbil-Ostadar B
■ 16:00 Erregional mutilak:
Usurbil F.T.-Mundarro FKE

## Eskubaloiko errifa zozketa

Usurbil Kirol Elkarteak urriaren 28an eginiko errifa zozketako zenbaki saritua 8.066 izan da. Sarituari bi lagunentzako otordua egokitu zaio Patri jatetxean.

## Pilota partidak

**Gipuzkoako Txapelketa**
**Azaroak 3, ostirala**
**20:30ean Usurbilen**
Eskuz binaka jubenilak, 2. maila
■ Pagazpe / Aloña Mendi 1







## ETXEBIZITZA

### Salgai

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m$^2$ eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m$^2$. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m$^2$, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m$^2$ pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m$^2$ (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m$^2$ trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m$^2$. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

### Alokairuan

3 logelako etxebizitza alokatzen dut Muna Lurra kalean. 943 36 53 58 / 661 43 63 53

Kalezarren etxebizitza alokagai. 3 logela, garajea eta trastelekuarekin 673 547 332.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaia azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro$^2$ lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m$^2$, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Astelehenetik ostiralera, 08:00-15:00 artean haur zaintza eta etxeko lanetan aritzeko langile euskaldun bat behar dut. 656 730 759

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 88 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsesean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067




**Zorionak Amoni!** Urriaren 28an urtebetetze egun zoragarria ospatu genuen denok elkarrekin! Urte askuan!!

**OHARRA:** 2017ko azaroaren 10ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: azaroaren 6an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Interna bezela, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketan lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

**BESTELAKOAK**

Patinetea salgai. Oxelo 7 Town Susp markakoa. Prezioa: 30 euro. 656 734 413.

Gitarra klaseak ematen dituen pertsona baten bila gaude. 657 795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kakatua txiki bat (ninfa) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Kutxabank | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Azaroak 02 - azaroak 12

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 02 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 03 | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| **Larunbata** | 04 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Igandea** | 05 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Astelehena** | 06 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Asteartea** | 07 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Asteazkena** | 08 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Osteguna** | 09 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 10 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Larunbata** | 11 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Igandea** | 12 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda azaroa

## 03 ostirala

- **NOAUA!ren Kulturaldia: Alejandro Tapiari omenaldia** 19:00etan Sutegiko auditorioan. Segidan, bere lanen inguruko erakusketaren irekiera.

## 04 larunbata

- **NOAUA!ren Kulturaldia: "Landareak lantzen" liburu aurkezpena** 11:00etan Potxoenean.
- **"Martin Bertso" ikuskizuna** 17:30ean Aginagako ludotekan.

## 05 igandea

- **Elgeako zerrara irteera.** 7:30ean Kiroldegitik, autobusez (aurrez eman behar zen izena).
- **NOAUA! Kulturaldia: kantu-bertso-jira** 12:00etan Mikel Laboa plazatik.
- **Pepper filma Sutegin**. 17:00etan.
- **Handia filma Sutegin.** 19:30etan.

## Azaroaren 7an hasiko da "Emakumea eta umorea" ikastaroa

Umorea ezinbestekoa da ondo bizitzeko. "Eta gehienetan oso atsegina da barre egitea, kulerotan pixa egin arte barre egitea. Zerk eragiten du irribarrea, zerk algara? Geure buruaz barre egitea oso osasuntsua da, baina gutaz beste norbaitek barre egitean zer sentitzen dugu? Dena da onargarria? Eta gu umore sortzaile? Lan talde honetan hau guztia aztertuko dugu. Emakumea umore objektu gisa, umore hartzaile gisa eta umore sortzaile gisa".

Hortxe Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak datorren hilabeterako antolaturiko "Emakumea eta umorea: zergatik, zertaz eta nola egiten dugu barre emakumeok" doako ikastaroko gako nagusiak.



**Bea Egizabalek eskainiko du ikastaroa. Azaroaren 7an hasiko da, Potxoenean.**

Ikastaroko saioak azaroko astearteetan izango dira; hilaren 7an, 14an, 21ean eta 28an, 17:30-19:30 artean Potxoenean. Izena aurrez eman beharko da; azaroaren 3a baino lehen Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailean, 943 377 110 telefono zenbakian edo parekidetasuna@usurbil.eus helbidean.

## Ostegun honetan islamofobiari buruzko hitzaldia

Tarana Karim SOS Arrazakeriako kideak eskainiko du hitzaldia. Azaroaren 2an osteguna, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Udala eta herritar talde baten eskutik.

## Igandean Sutegin, "Pepper" euskarazko filma gazteentzat

Igande honetan, "Pepper" filma eskainiko dute arratsaldeko 17:00etan Sutegin. Film proiekziorako sarrerak egunean bertan, 3 eurotan erosi ahalko dira.

## Datozenak

### Azaroaren 6an, odol ematea

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak deitutako datorren saioa, azaroaren 6an. Ohiko ordu eta lekuan; 18:00-20:30 artean Usurbilgo anbulatorioan.

### Azaroaren 11n, DYAren ikuskizuna Aginagan

DYA-k gorputz higieneari buruzko clown saioa eskainiko du Aginagan. "Jarduera honen helburua umeei norbere higienearen oinarrizko arauak zeintzuk diren helaraztea da".
Azaroaren 11n larunbata, 17:30etik aurrera Aginagako ludoteka.

### Alejandro Tapiaren erakusketa

Azaroaren 12ra arte, Alejandro Tapiaren lanak ikusgai izango dira Sutegin. "Berak bereziki maite zituen lanak eta inoiz erakutsi gabeko lanak izango ditugu erakusgai".

- Tokia: Sutegiko erakustaretoa.

Bisita orduak:

- Azaroaren 3an: 18:00-20:00.
- Azaroaren 4, 5, 11, eta 12an: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.
- Azaroaren 8, 9 eta 10ean: 18:00-20:00.


*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* RPS: 28/17 *USURBIL*

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045



# Ofizioen Gida

**URDAINTZI**
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

**Josue Igeltseritza**
Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL
606 37 21 05
Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**
Igeltseritza Orokorra
Telefonoa
693059392
e-posta:
uraitz@uraitz.com
Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

**ELORZA**
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.
661 804 688
jon.elorza@hotmail.com
SAN ESTEBAN 5, BAXUA

**IRUARKAITZ**
ERAIKUNTZAK, S.L
·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA
630 90 02 79 AGINAGA

PLADUR

**PLAKODUR**
Eskaiola eta Pladurra
943 00 85 44 - 634 45 78 78

**Antonio Urruzola**
AROZTEGIA
Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

**BARRENETXE**
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROZTEGIA
943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL
**J. R. IBARGOIEN S.L**
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK
www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net
943 36 14 48 - 676 45 31 76

**ARGILAN**
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
629 272 859
943 361 380
BORDA-BERRI 5,baxua USURBIL

antenas **Telemar**
943 55 33 99
info@antenastelemar.com
Elkano kalea 13, HERNANI

**APARICIO**
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK
Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

**Enrique Alonso**
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA
Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
659 675 283

**Iñaki Iturgintza**
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

**JOSEBA ARANGUREN**
ITURGINTZA
943 83 00 72
659 88 39 12

**Rafa**
iturgindegia
· Iturgin lan orokorrak · Dutxako hanparak
· Konfindatzazko gremioak · Komuneko altzariak
Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

**XNORGA TXIBI S.L**
KRISTALDEGIA
· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak
943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

**ventamix**
943 59 32 58
600 80 30 05
LUMON
Banatzaile Ofiziala
info@ventamix.com ·Ugaldea polig. 18, USURBIL



azaroak 3, Ostirala 19:00

**ALEJANDRO TAPIA-ren OMENEZKO EKITALDIA ERAKUSKETA IREKIERA**



azaroak 5, Igandea 12:00

**KANTU BERTSO JIRA JON MAIA ETA ALAIA MARTIN BERTSOLARIEKIN**





azaroak 4, Larunbata 11:00

Jakoba Errekondo-ren
Antton Olariaga-ren

**LANDAREAK LANTZEN LIBURU AURKEZPENA**



azaroak 5, Igandea 19:30

**HANDIA FILMA**




# Noaua!ren KULTURALDIA 2017

Azaroaren 3tik 12ra



azaroak 9, Osteguna 19:30

Zuriñe Hidalgorekin berriketan

**HITZALDI SOLASALDIA**



azaroak 11, Larunbata 20:00

Ane Labaka (Bertsolaria) eta Beatriz Egizabal (Antzerkilari / Ipuin Kontalaria)

**ANTZEZLANA: ERRADIKALAK GARA**




azaroak 12, Igandea 19:00

**JOSEBA TAPIA ETA BESAMOTZAK TALDEAREN KONTZERTUA**



azaroak 10, Ostirala 19:30

**ORBELDI DANTZAN**



azaroak 3tik – 12ra.

**ERAKUSKETA: ALEJANDRO TAPIAREN LANAK**

noaua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ALKARTASUNA

TAPIAREN FAMILIA ETA INGURUA · USURBILGO KANTU TALDEA · ORBELDI DANTZA TALDEA · BOTA PUNTTUBA